

Datu horiek ingurumen-adierazle jakin batzuetan oinarrituta daude, eta mementoko egoera zein den jakiteko baino gehiago bilakaera ezagutzeko balio dute. **Izan ere**, oro har, ingurumen-adierazle horiek epe jakin batzuetan neurtzeko eta aztertzeko modukoak izaten dira.



Izan ere

Kausazko lokailua da *izan ere*; haren bidez, zergatiko, azalpen, argudio edo justifikazio bat sartzen da diskurtsoan.

Kokapena

Oro har, perpausaren hasieran kokatzen da.

- Zarata-mapen bidez, hirietako zarata toki bakoitzeko lurraren erabilerarekin aldera daiteke. **Izan ere**, erabileraren arabera, ezarritako zarata-mugak desberdinak dira.

Kokapena

Baina perpausaren barnean ere ager daiteke.

- Legeko egintzetan oinarritzen direnak, berriz, madarikaziopean daude; hau dio, **izan ere**, Liburu Santuak: Madarikatua legeko liburuan idatzitako guztiak gogoan hartzen eta betetzen ez dituenak.
- Zenbait hizkuntza-fenomenoren azterketak gizabanakoaren jokamoldeari kasu egitea dakar. Azterketa horrek, **izan ere**, aintzat hartu behar ditu hizkuntza bat edo bestea aukeratzeko esanguratsuak diren faktoreak.

Puntuazio-markak

Perpausaren hasieran doanean, puntua edo puntu eta koma jartzen da haren ezkerrean, eta koma haren eskuinean.

- Baina sartu eta berehala ohartu ziren erromatarren garaikoa zela, haien meategien ezaugarriak zituen: metro eta laurogei zentimetroko altuera, metro inguruko zabalera... eta pikotxarekin egindako arrastoak ere han ziren, hormetan. **Izan ere**, erromatarrek pikotxarekin leuntzen zituzten meategiaren hormak.
- Dena dela, ez da erraza izango Arditurriko meatzeetako herria aurkitzea; **izan ere**, mendeetan egindako meatzaritza-lanek eta hondakin-pilaketek asko aldatu dute ingurua.

Puntuazio-markak

Perpausaren barruan, berriz, komen artean joaten da.

- Zenbait genek eta haien proteinek, **izan ere**, ia-ia beren horretan iraun dute.

Juntagailu bat, lagun

Perpausaren hasieran doanean, *eta* juntagailua har dezake lagun.

- Ahozko euskara lantze aldera, egitasmo politak egin dira: bertsolaritza da denetan arrakastatsuena, *eta*, *izan ere*, sena garatzeko eta hizkuntzarekin jolasteko laguntza bikaina eman ohi du bertsogintzak.

Esapide horrek (*eta*, *izan ere*) argudio bat sartzen du diskurtsoan, lehenago esana berresten duena.

bait- aurrizkia

Hasieran (edo barnean) *izan ere* lokailua duen perpasuaren aditzak, oro har, ez du *bait-aurrizkia* hartzen.

- Jakina, ez zidan harrapatu beste poemarik ariketa-koaderno batean; *izan ere*, etxean *idazten nituen*, eta ondo gorde.

Nolanahi ere, aurrizki horrekin ere agertzen da, maiztasun urrian bada ere.

- Ondo dastatzen jakin behar; batzuetan, *izan ere*, gozotasuna *baita* galbide, eta garraztasuna salbamen, Ediporen mitoan bezalaxe, garaipena eta aintza izan baitzituen, hain zuzen, galbide.

Aurrizkia ez erabiltzea da gure gomendioa.